



ITSASONDOKO  
UDALA

## **ITSASONDOKO KAXINTANE HERRIKO TABERNAREN KUDEAKETARAKO ETA USTIAPENERAKO ADMINISTRAZIO EMAKIDA ARAUTUKO DUTEN ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA.**

### **1. XEDEA**

Agiri honen xedea Itsasondoko Nagusia 27ko behean kokaturiko Itsasondoko Udalaren Kaxintane taberna-jatetxea (Herriko Taberna) ustiatzeko lehiaketaren bidez egingo den esleipenaren baldintzak arautzea da

### **2. KONTRATATZAILEAREN PROFILA**

Kontratu-jarduerari buruzko informazioaren gardentasuna eta atzipena bermatzeko xedez, eta legez ezarritako aginduei jarraikiz, Udalak lizitazioaren iragarkia kontratatzailearen profilean eta [www.itsasondo.eus](http://www.itsasondo.eus) web-orrian argitaratuko du. Horrez gain, beste publizitate- bide batzuk ere erabil ditzake.

### **3. KONTRATUAREN IRAUPENA**

Kontratuaren iraupena bost (5) urtekoa izango da, kontratua formalizatzen den egunetik kontatzen hasita.

Kontratuaren lehenengo sei hilabeteak probaldi edo jarraipen-aldizat hartuko dira. Epe horretan, Udalak kontratuaren exekuzioa, zerbitzuaren kalitatea eta pleguetan ezarritako betebeharren betetzea ebaluatu ahal izango ditu.

Era berean, probaldiak irauten duen bitartean, esleipendunak ustiapenarekin ez jarraitzeko aukera izango du, baldin eta Udalari gutxienez hiru (3) hilabeteko aurreabisua egiten badio. Betiere, instalazioak egoera egokian itzulita eta Udalarekiko zor guztiak kitatuta

Probaldian zehar kontratistak ez baditu kontratuaren funtsezko betebeharrak betetzen, Udalak kontratua suntsiarazi ahal izango du, dagokion espedientea izapidetu ondoren.”

### **4. JABETZAREN ERREGIMENA**

Udal Korporazioak emakidan emandako ondasunen jabetza osoa mantenduko du une oro. Ondorioz, emakidunari ondasun horiek erabiltzeko eta ustiatzeko eskubidea baino ez zaio aitortzen, kontratu honetan ezarritako baldintzen arabera, eta inolaz ere ez da ulertuko jabetza-eskubiderik edo titulartasunik eskuratzen duenik.



**ITSASONDOKO  
UDALA**

## **5. ZERBITZUARI HASIERA EMATEA**

Agiri honetan jasotzen diren zerbitzuei esleipen-kontratuak zehazten duen egunean emango zaie hasiera, eta, betiere, uztailearen 1etik aurrera.

## **6. OINARRIZKO KANONA edo ESKAINTZAREN OINARRIA.**

**Kaxintane taberna-jatetxearen oinarrizko kanona edo eskaintzaren oinarria hilean 400 eurotan ezarri da (BEZ barne), alegia, 4800 euro urtean (BEZ barne).**

Lizitatuzaileek lizitazioaren gutxieneko prezioa/kanona hobetu dezakete beren eskaintzetan. Lizitazioaren gutxieneko prezioetik beherako eskaintza ekonomikoak bazter utziko dira automatikoki.

Kontratuaren kanona behin betiko esleipenaren ondorioz ezarritakoa izango da, dagokion BEZ zerga erantsita. Esleipendunak Itsasondoko Udalak erabakitzen duen lekuan edo kontuan ordainduko du hileroko, hilabete bakoitzeko 25etik 30era arte. Honenbestez, urte bakoitzaren bukaeran kanona osorik ordainduta izango du.

Hileroko kanona ordaintzeko epean hilabeteko atzerapena izaten badu, dagokion errekerimendua bidaliko zaio ordainketa egiteko eta ordaindu gabe jarraituko balu, zor duen kantitateari legezko berandutze interesa erantsiko zaio, zorra erabat likidatu arte. Guzti hori, ezarritako baldintzak ez betetzeagatik, udalak kontratua amaitutzat emateko erabakia hartzeko duen ahalmena erabakitzearen kaltetan gabe

Esleipenaren ondorioz finkatutako hileko kanona urtero urtarrilaren 1ean eguneratuko da, aurreko urteko Estatuko Kontsumoko Prezioen Indizean (KPI) oinarrituz.

Kontratua indarraldian dagoen bitartean edozein arrazoiengatik lokala ixteak edo ustiatzeari uzteak ez du esleipenduna kanona ordaintzetik salbuetsiko.

## **7. BERMEA**

Lehiaketan parte hartu ahal izateko, ez da behin-behineko bermerik jarri behariko Udala Diruzaintzan.

### **a. Behin betiko bermea**

SPKLaren 107. artikuluaekin bat etorriz, eskaintza ekonomikorik onena aurkezten duen lizitatuzaileak 3.000 euroko behin betiko bermea eratu behariko du Udalaren Kutxan.

Berme hori SPKLaren 108. artikuluan aurreikusitako edozein modutan eratu ahal izango da, indarreko legediak ezarritako baldintzetan.

Behin betiko bermeak kontratuaren exekuzio egokia bermatuko du, eta bereziki kontratua ez betetzeagatik edo kontratutik eratorritako gainerako betebeharrak ez betetzeagatik sor daitezkeen erantzukizunak estaliko ditu.

### **b. Fidantza**

Esleipendunak, halaber, bi hileko errentaren baliokidea den fidantza eratu behariko du dirutan.

Fidantza horren helburua izango da instalazioetan, ekipamenduan edo lagatako ondasunetan sor daitezkeen kalteak estaltzea, bai eta emakidaren erabilera desegokiaren ondoriozko galerak ere.



**ITSASONDOKO  
UDALA**

### **c. Epea eta ondorioak**

Behin betiko bermea eta fidantza 7 egun balioduneko epean eratu beharko dira, jakinarazpena bidaltzen denetik zenbatzen hasita.

Emakida-kontratua epea amaitu baino lehen uzten bada, eta uzte hori esleipendunari egotz dakiokeen arrazoen ondorio bada, edo behar bezala justifikatu gabe egiten bada, ezarritako bermea osoa edo zati bat galdu ahal izango da, sortutako kalte eta galerak estaltzeko neurrian; bereziki, gutxienez bi hileko kanonaren baliokidea den zenbatekoa.

Kontratua behar bezala bete dela egiaztatu ondoren, eta administrazioak egoki irizitakoan, bermea itzuliko da, legez ezarritako baldintzak betez.

Behin-betiko bermea osatu ondoren, esleipendunak bi alderdiek hitzartutako kontratua sinatu beharko du. Esleipendunak kontratua ez badu epe barruan formalizatzen, eta hori hari egotz dakiokeen arrazoen ondorio bada, ezarritako behin betiko bermea galduko da, kontratuaren ondorioz sor daitezkeen gainerako erantzukizunak alde batera utzi gabe.

## **8. EMAKIDADUNAREN KONTRATU OBLIGAZIO BEREZIAK**

Esleipendunak, indarreko legedian jasotako obligazio orokorrez gain, agiri honetan zein Baldintza Teknikoen Agirian datozen berariazko obligazioak eta eskaintzan bere gain hartutako konpromisoak bete behar ditu.

## **9. UDALAREN OBLIGAZIOAK**

Udalak, agiri honetan eta indarreko legedian jasotako obligazio orokorrez gain, baldintza teknikoen agirian datozen berariazko obligazioak bete behar ditu

## **10. PARTE HARTZEKO AHALMENA**

Espainiako edo atzerriko pertsona fisiko edo juridikoek aurkeztu ahal izango dituzte proposamenak, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzeko debekurik ez badute eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa edo profesionala badutela egiaztatzen badute.

Lizitatuzaileek baldintza horiek betetzen dituztela erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuko dute. Udalak, edozein unetan, baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko eska dezake, indarrean dagoen legediak ezarritako agiriak aurkezteko eskatuz.

Proposamen ekonomiko eta tekniko onena aurkezten duen lizitatuzaileak, kontratua formalizatu aurretik, aipatutako baldintzak eta kaudimena benetan egiaztatu beharko ditu, dagokion dokumentazioa aurkeztuz, ondorengo baliabideak erabiliz:

**Lizitatuzaileen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofizialean inskribatuta daudenean:**

Sektore Publikoko Lizitatuzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskripzioak egiaztatuko ditu, bertan adierazitakoaren arabera eta kontrako frogarik ezean, enpresaburuaren gaitasun-baldintzak, nortasunari eta jarduteko gaitasunari, ordezkartzari, lanbide-gaikuntzari edo



## ITSASONDOKO UDALA

enpresa gaitasunari, ekonomia- eta finantza kaudimenari eta gaitasun tekniko edo profesionalari, sailkapenari eta inskribatutako gainerako inguruabarrei dagokienez, bai eta bertan jaso beharreko kontratatzeak debekuak dauden edo ez ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzailen Erregistroan inskribatzeak inguruabar berberak egiaztatuko ditu harekin, bere lurralde-eremuko toki erakundeekin eta bataren eta bestearen mendeko sektore publikoko gainerako ente, organismo edo erakundeekin kontratatzeak.

Lizitatzailen erregistroen edukiaren frogaraz erregistroaz arduratzen den organoaren ziurtagiriaren bidez egingo da, eta ziurtagiri hori bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoa bidez egin ahal izango da.

Ziurtagiriek enpresaburua zerrendan inskribatzea edo ziurtagiria ematea ahalbidetu duten erreferentziak adierazi beharko dituzte, baita, hala badagokio, lortutako sailkapena ere. Nolanahi ere, kontratazio-organismoak eta -mahaiak egiazta dezake ziurtagirian agertzen diren datuak eta inguruabarrak bat datozela Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean jasotzen direnekin.

Aldi baterako enpresa-elkarteei dagokienez, SPKLko 69. artikuluko 8. paragrafoan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaio haien osaera aldatzeko eta lizitazioan aldaketak egiteko. Sozietate kontratistak parte hartzen duen enpresen bat-egiteen kasuan, indarrean dagoen kontratuak jarraituko du erakunde xurgatzailearekin edo bategitearen ondorioz sortutakoarekin, eta hortik eratorritako eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatuta geratuko da. Era berean, enpresen edo horien jardura-adarren zatiketa, ekarpen edo eskualdaketa kasuetan, kontratua esleitzen zaion erakundearekin jarraituko du kontratuak, eta kontratuaren ondoriozko eskubide eta betebeharrak subrogatuta geratuko da, betiere honako baldintza hauek betetzen baditu: gaitasuna, kontratatzeak debekurik eza, esleipena erabakitzean eskatzen den kaudimena edo eragiketaren horien sozietate onuradunek eskatzen duten kaudimena, eta, iraunez gero, sozietatearen erantzukizun solidarioa edo ondarea.

Kontratua esleitu zaion erakundeak beharrezko kaudimen baldintzak betetzen ez dituelako subrogaziorik egin ezin bada, kontratua suntsiaraziko da, eta ondorio guztietarako suntsiarazpen-kasutzat hartuko da, esleipendunaren eruz. Aurreko ondorioetarako, enpresak gertatu den zirkunstantzia jakinarazi beharko dio kontratazio-organismoari.

Pertsona juridikoak beren estatutuen edo sortze-arauen arabera berezkoak dituzten helburuen, xedearen edo jardura-eremuaren barruan sartzen diren kontratuen esleipendun baino ezin izango dira izan.

Enpresa- edo lanbide-gaikuntzari dagokionez, kontratuaren xedea den jardura edo prestazioa egiteko eska daitekeenari jarraituko zaio.

Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten Erkidegoko edo estatuetako enpresei eta Erkidegoz kanpoko enpresei dagokienez, SPKLren 67. eta 68. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

### **Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofizialean inskribatuta ez dauden enpresaburuen kasuan, honela egiaztatuko da:**

1. Enpresaburuen jarduteko gaitasuna honela egiaztatuko da:



## ITSASONDOKO UDALA

1.1.- Eratze-eskritura edo -agiriaren, estatutuen edo sortze-egintzaren bidez pertsona juridikoak diren enpresariena, beren jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituztenak, kasuan kasuko erregistro publikoan behar bezala inskribatuta, kasuan kasuko pertsona juridiko motaren arabera.

1.2.- Pertsona fisikoak diren enpresariena, Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia baten bidez.

Espainiarrak ez diren eta Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetak nazionalitatea duten enpresariak dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatuko da, ezarrita dauden estatuko legediaren arabera, edo zinpeko aitortpena edo ziurtagiria aurkeztuta, erregelamendu bidez ezarritako moduan, aplikatzekoak diren Erkidegoko xedapenekin bat etorritik.

2. Enpresaburuek kontratatzeke debekurik ez dagoela frogatzeko, lekukotza judiziala edo administrazio ziurtagiria aurkeztu ahal izango dute, kasuaren arabera. Agintaritza eskudunak ezin badu agiri hori eman, horren ordez erantzukizunpeko adierazpen bat egin ahal izango da, administrazio-agintaritza, notario publiko edo lanbide-erakunde kualifikatu baten aurrean.

### **Kaudimen ekonomikoa:**

SPKLren 87.1.b artikuluan ezarritakoaren arabera, gutxienez 300.000 euroko estaldura duen erantzukizun zibileko aseguruaren bidez egiaztatuko da.

### **Kaudimen teknikoa:**

Lizitatuzaileek kaudimen teknikoa egiaztatu beharko dute, azken urteetan ostalaritza edo antzeko jardueretan izandako esperientziaren bidez, edo zerbitzua behar bezala emateko gaitasuna dutela frogatzen duten beste edozein bitartekoren bidez.

Horretarako, proposamen onena aurkezten duen lizitatuzaileak, kontratua formalizatu aurretik, egiaztagiria aurkeztu beharko ditu, hala nola egindako lanen ziurtagiriak, kontratuak edo bestelako agiriak.

Halaber, zerbitzua emango duten pertsonen edo taldearen inguruko informazioa aurkeztu beharko da, haien esperientzia, gaitasuna eta antolaketa zehaztuz. Informazio hori egiaztatzeke, curriculum vitae-ak edo antzeko agiriak aurkeztu ahal izango dira.

Era berean, zerbitzua emango duten langileek duten euskararen ezagutza-maila adierazi beharko da, zerbitzua emango duten pertsonen eskatutako hizkuntza-gaitasuna betetzen dutela egiaztatzeke.

Bestalde, zerbitzua emango duten pertsonen elikagaien manipulatuzailearen titulua izan beharko dute, edo, bestela, esleipena egin aurretik titulua eskuratzeko konpromisoa hartu beharko dute.

## **11. PROPOSAMENA AURKEZTEKO AURRETIAZKO BALDINTZAK:**

Interesdunen proposamenak lizitazioa arautzen duten agiritara eta dokumentaziora egokitu beharko dira, eta horiek aurkezteak berekin dakar enpresaburuak baldintzarik gabe onartzea klausula edo baldintza guztien edukia, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

Erakunde lizitatuzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, ezta



**ITSASONDOKO  
UDALA**

beste batzuekin aldi baterako elkarte gisa proposamenik sinatu ere, banaka aurkeztu badu edo aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan agertu bada. Arau horiek hautsiz gero, ez dira onartuko berak izenpetutako proposamen guztiak.

## **12. PROPOSAMENAK AURKEZTEA: ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA, BETEBEHARRAK ETA AGIRIAK**

### **Eskaintzak aurkezteko lekua eta epea**

Lizitazio hau Udal honen kontratatzailearen profilean argitaratuko da, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforma-n ostatatuta.

Interesdun potentzialak gehienbat enpresa txikiak edo pertsona fisikoak izango direla kontuan hartuta, eta eskaintzak elektronikoki aurkezteko izan ditzaketen zailtasunak ikusita, kasu honetan, eskaintzak kontratatzailearen profilean elektronikoki zein paperean aurkezteko aukera emango da, salbuespen gisa eta interes publikoaren arrazoiengatik.

Eskaintza elektronikoak kontratatzailearen profilaren bidez aurkeztu beharko dira.

Paperean aurkeztutako eskaintzak bi gutun-azal itxitan aurkeztu beharko dira, Itsasondoko Udaletxeko erregistro orokorrean, haren ordutegiaren barruan (astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara).

Proposamenak 15 egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, epea hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Aurkezteko epea honela amaituko da:

- Aurrez aurreko aurkezpena: azken eguneko 14:00ak arte, udal erregistroaren ordutegiaren barruan.
- Aurkezpen elektronikoa: azken eguneko 23:59ak arte, kontratatzailearen profilaren bidez.

Proposamenak aurkezteak administrazioarekin lotzen du lizitatzailerak, eta baldintza-agiri honetako klausulak eta baldintzak baldintzarik gabe onartzen dituela ulertuko da, inolako salbuespen edo erreserbarik gabe.

Behin proposamena aurkeztuta, ezin izango da inola ere erretiratu. Proposamenak isilpekoak izango dira, eta izaera hori bermatzeko behar diren neurriak hartuko dira, proposamenak jendaurrean ireki arte.

Lizitatzailerak informazioa ematea: SPKLren 138. artikuluan aurreikusitako informazio gehigarria edo osagarria eskatzen denean, kontratazio-organoak eskaintzak aurkezteko ezarritako epea amaitu baino gutxienez sei egun lehenago eman beharko du, betiere eskaera hori epe hori amaitu baino gutxienez hamabi egun lehenago aurkezten bada

### **Betebeharrak eta agiriak**

Lizitatzailerak proposamenak aurkezteko, dokumentazioa bi gutun-azal bereizitan aurkeztu



ITSASONDOKO  
UDALA

beharko dute, kontratuaren lizitazioan eskatutakoaren arabera.

- **Aurrez aurreko aurkezpena egiten denean:**

Lizitatuzaileek proposamenak bi gutun-azal itxitan aurkeztu beharko dituzte, honako izenburu honekin: **"ITSASONDO2026/02: Itsasondoko Kaxintane taberna-jatetxearen kudeaketa eta ustiapenerako kontratazioan parte hartzeko proposamena"**.

Proposamenak eskabide orokorrarekin batera aurkeztu beharko dira, dagokion sarrera-erregistroan inskribatzeko. Gutun-azalak itxita eta behar bezala zigilatuta aurkeztu beharko dira, barruan jasotako dokumentuen isilpekotasuna bermatzeko.

Gutun-azal bakoitzean lizitatuzailearen identifikazioa eta dagokion gutun-azalaren izendapena (A edo B) adierazi beharko da.

- **Aurkezpen elektronikoa egiten denean:**

Proposamena kontratatzailearen profilaren bidez aurkeztu beharko da, eta kasu horretan ere dokumentazioa bi gutun-azal bereizitan aurkeztu beharko da, plataforma elektronikoak ezarritako moduan.

**A GUTUN-AZALAK** honako azpititulu hau izango du: **"ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA AUTOMATIKOKI EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEEN ARABERAKO ESKAINTZA"**.

Gutunazal honetan honako dokumentu hauek jasoko dira:

**1- Erantzukizunpeko adierazpena:**

Lizitatuzaileak, edo hala badagokio, haren ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, **1. eranskinean** jasotako honako alderdi hauek adieraziz:

- Jarduteko gaitasun osoa duela.
- Kontratatzeko debekurik ez duela eta zerga betebeharrei eta gizarte segurantzari dagokienean ordainketak egunean dituela.
- Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala betetzen duela.
- Baldintza-agiri honetan ezarritako gainerako betekizunak betetzen dituela.

Ordezkaritza bidez jarduten denean, hori ere adierazi beharko da. Ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa esleipendun izateko proposatzen den lizitatuzaileari soilik eskatuko zaio, kontratua formalizatu aurretik aurkeztu beharreko dokumentazioarekin batera.

Era berean, hainbat enpresarik aldi baterako enpresa-elkartea osatzen badute, enpresa bakoitzak, agiriaren I. eranskinaren ereduari jarraikiz, bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar du. Halaber, SPKLaren 69. artikulua 3. atalean jasotakoa betetz, aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko enpresarien konpromisoa aurkeztu behar da. Elkarte horrek behintzat kontratua amaitzen den arte iraungo du. Aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisozko idatzian datu hauek adieraziko dira: enpresari bakoitzaren izen- abizenak eta zirkunstantziak, partaidetza eta, kontratuaren esleipendunak izaten badira, aldi baterako enpresa-elkartea



ITSASONDOKO  
UDALA

formalki eratzeko konpromisoa. Aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten enpresetako ordezkariak dokumentua sinatu behar dute.

*\*Kontratazio-organoak edo -mahaiak erantzukizunpeko adierazpenaren iraupenari edo fidagarritasunari dagokienez arrazoizko zalantzak daudela baderitzo, lizitatzailerei egiaztagiri guztiak edo batzuk aurkezteko eska diezaioke, prozeduraren garapen onerako, eta, edonola ere, kontratua esleitu aurretik, beharrezkoa denean.*

## **2- Proiektuaren memoria (balio-iritzien arabeko irizpideak):**

Lizitatzailak memoria tekniko bat aurkeztu beharko du, non azalduko duen nola ustiatuko duen Itsasondoko taberna-jatetxea. Hau da, taberna-jatetxerako duen proiektua, zein helburu dituen, zein ekintza berritzaileak proposatzen dituen eta, oro har, nola eragin nahi duen herriaren bizitzan taberna-jatetxearen bitartez. Memorian adierazitako datuak egiaztatzeko agiriak aurkeztu ahal izango dira, eta Kontratazio Mahaiak beharrezkotzat jotzen badu eskatu ahal izango ditu.

Memoria horretan, gutxienez, honako alderdi hauek jaso beharko dira:

### **a) Negozio eredua eta bideragarritasuna**

- Ustiapenaren planteamendu orokorra
- Proposamenaren koherentzia eta bideragarritasun ekonomikoa

### **b) Zerbitzuaren antolaketa eta funtzionamendua**

- Eguneroko funtzionamendua
- Langileen antolaketa
- Arreta-eredua

### **c) Giza baliabideak eta baliabide teknikoak**

- Langileen zerrenda
- Langileen esperientzia eta gaitasun deskribapena (CVak...)
- Antolaketa

### **d) Taberna-zerbitzuaren eskaintza eta egokitasuna**

- Eskaintzen den zerbitzu mota
- Produktuen eta zerbitzuen proposamena
- Prezioen politika (orientagarria)

### **e) Ordutegi proposamena**

- Irekiera-egunak eta ordutegiak
- Malgutasuna (jaiegunak, ekitaldiak...)
- Oporraldien antolaketa eta ordezkapenak



ITSASONDOKO  
UDALA

#### **f) Herriko dinamizazioa eta gizarte-ekarpena**

- Ekimenak (ekitaldiak, jarduerak...)
- Herriko bizitzan parte hartzea

#### **g) Instalazioen erabilera eta mantentzea**

- Instalazioen zaintza
- Garbitasuna eta mantentzea

#### **h) Euskararen erabilera**

- Euskarazko arreta bermatzeko modua
- Jendaurreko langileen euskara mailaren deskribapena

Aurreko ataletan zehaztutako gutxieneko edukiaz gain, lizitatzailleek aurkezten dituzten **hobekuntzak, ekimen osagarriak edo proposamen berritzaileak** ere baloratu ahal izango dira, baldin eta kontratuaren xedearekin lotuta badaude eta zerbitzuaren kalitatea, herriko dinamizazioa edo ustiapenaren egokitasuna hobetzen badute.

#### **Balorazio irizpideak :**

Memoria teknikoa baloratzean, bereziki kontuan hartuko da proposamenak **herri txikietako taberna-zerbitzuaren izaerari eusteko eta indartzeko egiten duen ekarpena**, kontuan hartuta zerbitzu honek udalerrian duen garrantzi soziala eta dinamizatzailea.

Ilido horretan, honako alderdi hauek baloratuko dira:

#### **Zerbitzuaren eskaintza eta egokitasuna:**

##### **a)- Negozio eredia eta bideragarritasuna**

- Proiektuaren argitasuna eta egokitasuna
- Datu ekonomikoen koherentzia eta sinesgarritasuna

##### **b)- Zerbitzuaren antolaketa eta funtzionamendua**

- Antolaketa-maila eta egokitasuna
- Bezeroarentzako arreta kalitatea

##### **c) Giza baliabideak eta baliabide teknikoak**

- Taldearen egokitasuna eta esperientzia

##### **d) Taberna-zerbitzuaren eskaintza eta egokitasuna**

- Bazkari eta afarien eskaintza eta maiztasuna
- Menu, pintxo eta ogitartekoen eskaintza (bertako produktuen erabilpena,...)
- Eskaintza bereziak (zeliakoak, beganoak, gazteentzakoak, asteburuko menuak, etab.)
- Herri txiki bateko beharretara egokitzea



ITSASONDOKO  
UDALA

**e) Ordutegi proposamena**

- o Gutxieneko ordutegiak zabaltzea
- o Zerbitzuaren jarraitutasuna (oporraldiak zehaztea, ordezkatzeta, ...)
- o Herriko beharretara egokitzea

**f) Herriko dinamizazioa eta gizarte-ekarpena**

- o Dinamizazio proposamenen kalitatea
- o Herriko bizitzan integratzeko gaitasuna

**g) Instalazioen erabilera eta mantentzea**

- o Garbiketa eta mantentze-planaren egokitasuna

**h) Euskararen erabilera**

- o Euskarazko zerbitzua emateko gaitasuna

Memoriaren balorazioa arrazoitua izango da, eta emandako puntuazioaren justifikazioa jasoko da.

**B GUTUN AZALAK** azpтитulu hau edukiko du: "**ESKAINZA – IRIZPIDE AUTOMATIKOAK**" eta barne hartuko ditu:

- 1- Agiriaren amaieran jasotako proposamen-eredua (baldintza-agiri honen **II. eranskina**), behar bezala beteta. Bertan, eskaintza ekonomikoa, herrian bizi, erroldatuta egon edo helbide fiskala izandako urteak eta esperientzia profesionala adieraziko dira.
- 2- Esperientzia II. eranskinean adieraziko da, eta esleipendun izateko proposatzen den lizitatzaileri bakarrik eskatuko zaio egiaztatze dokumentazioa aurkeztea.
- 3- Adierazitako esperientzia behar bezala egiaztatzen ez bada, ez da baloratuko.

Gutun-azaletako dokumentazioaren gaineko oharrak:

Eskatutako ereduari jarraikiz idatzita ez dauden proposamen ekonomikoak, edo Kontratazio Mahaiak eskaintza behar bezala baloratzeko funtsezkotzat jotzen dituen alderdiak argi eta garbi ezagutzea galarazten duten akatsak, ezabaketak edo aipamenik ezak dituztenak, ez dira onartuko.

Prezioen eskaintzaren xehakapenean detektatzen diren errore aritmetikoak zuzentzeko, oinarrizko prezioari eta aplikatzekoa den BEZ motari dagozkien zenbatekoak baliozkotzat joko dira, eta guztizko prezioa kalkulatzeko eragiketak ofizioz egingo dira.

Kontratuaren esleipena jakinarazi ondoren, eta horretarako ezarritako epean errekursorik aurkeztu ez bada, lizitatzailerek aurkeztutako dokumentazioa berreskuratu ahal izango dute.



ITSASONDOKO  
UDALA

Esleipenaren jakinarazpenetik hiru hilabeteko epean dokumentazioa jasotzen ez bada, Administrazioak ez du dokumentazio hori gordetzen jarraitzeko betebeharririk izango.

### **13. ESLEIPEN IRIZPIDEAK**

Kontratua esleitzeko, aurkeztutako eskaintzak honako irizpideen arabera baloratuko dira, guztira 100 punturekin:

#### **1.- Balio-iritzien arabeko irizpideak (50 puntu)**

##### **a) Proiektuaren memoria – 35 puntu**

Memoria teknikoa baloratzean, bereziki kontuan hartuko da proposamenak herri txikietako taberna-zerbitzuaren izaerari eusteko eta indartzeko egiten duen ekarpena, kontuan hartuta zerbitzu honek udalerrian duen garrantzi soziala eta dinamizatzailea.

Proiektuaren memoria gehienez 35 punturekin baloratuko da, honela banatuta:

- Negozio eredua eta bideragarritasuna: 3 puntu
- Zerbitzuaren antolaketa eta funtzionamendua: 3 puntu
- Giza baliabideak eta baliabide teknikoak: 10 puntu
- Taberna-zerbitzuaren eskaintza eta egokitasuna: 7 puntu
- Ordutegi proposamena: 2 puntu
- Herriko dinamizazioa eta gizarte-ekarpena: 3 puntu
- Instalazioen erabilera eta mantentzea: 2 puntu
- Euskararen erabilera: 5 puntu

Atal bakoitzean, aurkeztutako proposamenaren kalitatea, zehaztasuna, koherentzia eta egokitasuna baloratuko dira.

Era berean, lizitatuzaileek aurkezten dituzten hobekuntzak, ekimen osagarriak edo proposamen berritzaileak, baldin eta kontratuaren xedearekin lotuta badaude, dagokion atalaren barruan baloratu ahal izango dira.

##### **b) Elkarrizketa – 15 puntu**

Elkarrizketaren bidez baloratuko da lizitatuzailearen proposamena defendatzeko gaitasuna, eta bereziki kontratuaren xedearekin lotutako alderdiak azaltzeko duen egokitasuna.

Elkarrizketa gehienez 15 punturekin baloratuko da, honela banatuta:

- Proiektuaren ezagutza eta koherentzia: 5 puntu
- Zerbitzua emateko gaitasuna eta egokitasuna: 4 puntu
- Herriko errealitatearekiko egokitzapena: 3 puntu
- Herritarrekiko harremana eta arreta: 3 puntu



ITSASONDOKO  
UDALA

Atal bakoitzean, aurkeztutako proposamenaren kalitatea, koherentzia, zehaztasuna eta egokitasuna baloratuko dira.

Era berean, elkarrizketan zehar azaltzen diren hobekuntza-proposamenak, ekimen osagarriak edo proposamen berritzaileak, baldin eta kontratuaren xedearekin lotuta badaude, dagokion atalaren barruan baloratu ahal izango dira.

Balio-iritzien arabera irizpideen balorazioa arrazoitutako txosten baten bidez egingo da, eta emandako puntuazioaren justifikazioa jasoko da.

Balorazio-prozesuan gardentasun, objektibotasun eta proportzionaltasun printzipioak errespetatuko dira.

## **2.- Automatikoki ebaluatzen diren irizpideak (50 puntu)**

### **a) Eskaintza ekonomikoa (kanona) – 10 puntu**

Ustiapen-kanonaren gutxieneko zenbatekoa 400 eurokoa izango da (BEZ barne).

Lizitatuzaileek zenbateko hori gainditzen duten eskaintzak aurkeztu ahal izango dituzte. Gutxieneko kanona eskaintzen ez duten proposamenak ez dira onartuko.

Eskaintza ekonomikoaren balorazioa honela egingo da:

- Gutxieneko kanonaren gainetik eskainitako 200 euro bakoitzeko: puntu 1.
- Gehienez 10 puntu eskuratu ahal izango dira apartatu honetan.

### **b) Herriarekiko lotura eta gertutasuna: 10 puntu.**

Zerbitzuaren gertutasuna eta eguneroko erabilgarritasuna bermatzeko, baita herriarekiko lotura eta ezagutza balioesteko ere, honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Itsasondon bizi, erroldatuta egotea edo helbide fiskala izatea: 0,166 puntu hilabeteko, gehienez 10 puntu arte.
- Goierri eskualdean bizi, erroldatuta egotea edo helbide fiskala izatea: 0,083 puntu hilabeteko, gehienez 5 puntu arte.

Apartatu honetan ezin izango dira guztira 10 puntu baino gehiago eskuratu.

Pertsona juridiko berrien kasuan, baldin eta eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den unean helbide fiskalik ez badute, administratzailearen, ordezkari legalaren edo kapital sozialaren gehiengoaren titularraren errolda, bizilekua edo lotura fiskala hartu ahal izango da kontuan apartatu honetako balorazioa egiteko.

Egoitza egiaztatzeko, dagokion errolda-ziurtagiria, zerga-helbidearen egiaztatzea edo baliokidea den dokumentazioa aurkeztu beharko da. Hilabeteko zenbaketa egiaztatutako antzintasunaren arabera egingo da.

Itsasondon izandako errolda, bizilekua edo helbide fiskala Goierri eskualdeko loturatzat ere hartu ahal izango den arren, epe berean metatutako antzintasuna ez da bikoiztuko. Horrenbestez, aldi berean ezin izango dira puntuatu Itsasondoko eta Goierriko loturak batera; kasu bakoitzean dagokion puntuaziorik handiena aplikatuko da.

### **c) Esperientzia profesionala – 30 puntu**

Lizitatuzaileak ostalaritza-sektorean duen kudeaketa-esperientzia baloratuko da, bereziki taberna,



## ITSASONDOKO UDALA

jatetxe edo antzeko establezimenduen ustiapen, antolaketa edo arduradun-lanetan izandako esperientzia, kontuan hartuta kontratuaren xedea taberna-jatetxearen ustiapena eta kudeaketa dela.

Izan ere, taberna-jatetxearen ustiapen egokia eta zerbitzuaren kalitatea, neurri handi batean, zerbitzuaren antolaketa eta kudeaketa egokiaren arabera dira.

Esperientzia hilabeteko baloratuko da, egindako lanaren izaeraren eta kontratuaren xedearekin duen loturaren arabera.

### **Puntuazio-sistema:**

- **Taberna, jatetxe edo antzeko establezimenduen kudeaketa- edo arduradun-lanetan izandako esperientzia:**

**0,50 puntu hilabeteko, gehienez 30 puntu arte.**

Esperientzia egiaztatzeko, pertsona fisikoek zein pertsona juridikoek edo ondasun-erkidegoek honako agiriak aurkeztu beharko dituzte: lan-bizitza (bizitza laborala), kontratuak, enpresen edo administrazioen ziurtagiriak, beste herri bateko taberna edo herri-ostatu baten kudeaketa egin izanaren ziurtagiria, edo antzeko egiaztagiriak.

Pertsona juridikoen edo ondasun-erkidegoen kasuan, lizitatzaileren ibilbide profesionalari eta jardueran izandako esperientziari erreparatuko zaio, eta bereziki taberna, jatetxe edo antzeko establezimenduen ustiapen, kudeaketa edo administrazioan izandako esperientziari.

Horretarako, enpresaren edo ondasun-erkidegoaren jarduera eta esperientzia egiaztatzen duten kontratuak, administrazioen edo bezeroen ziurtagiriak, jarduera ekonomikoaren alta-agiriak edo antzeko egiaztagiriak aurkeztu beharko dira.

Esleipendun izateko proposatzen den lizitatzaileri bakarrik eskatuko zaio egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztea.

Salbuespen gisa, Itsasondoko Kaxintane tabernaren kudeaketan egindako esperientzia ez da egiaztatu beharko, Udalak berak informazio hori egiaztatzeko aukera duelako.

Aurkeztutako dokumentazioan kudeaketa- edo arduradun-lanen izaera behar bezala egiaztatzen ez bada, esperientzia hori ez da baloratuko.

Irizpide automatikoak formula objektiboen bidez ebaluatuko dira.

## **14. KONTRATAZIO MAHAIA ETA PROPOSAMENAK ZABALTZEA**

**Kontratazio mahaia honako kide hauek osatuko dute:**

- **Mahaiburu gisa:** Alkatea edo hark eskuordetzen duen zinegotzia.
- **Mahaikide gisa:** Udaleko bi funtzionario.
- **Idazkari gisa:** Udaleko funtzionarioa.

Kontratazio mahaia bere eginkizunak betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu, indarrean dagoen legediak ezarritakoaren arabera.



**ITSASONDOKO  
UDALA**

## **15. PROPOSAMENAK IREKITZEA**

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egun baliodunean, Kontratazio Mahaiak eskaintzaileek garaiz eta behar bezala aurkeztu duten dokumentazioa kalifikatzen hasiko da A gutun-azalaren irekierarekin.

Mahaiak aurkeztutako agiri administratiboetan akats formalak atzemango balitu, eta egokitzat joko balu, lizitatzailari gehienez hiru egun balioduneko epea eman ahal izango dio akats horiek zuzentzeko. Agirietan funtsezko akats edo hutsune material konponezinak atzemango balira, proposamena baztertu egingo da.

A gutun-azalean jasotako agiri administratiboak aztertu ondoren, balio-iritzien arabera irizpideak baloratuko dira. Horretarako, dagokion balorazio-txosten arrazoitua egingo da, eta gehienez zazpi eguneko epean burutu beharko da, indarrean dagoen legediak ezarritakoaren arabera.

Epe horretan, alde batetik, lizitatzailak aurkeztutako memoria teknikoa baloratuko da; bestetik, lizitatzailari elkarrizketa pertsonala egingo zaie, aurkeztutako proposamenaren alderdiak argitu eta osatzeko.

Balorazio hori egin ondoren, kontratazio-organoak, behar adinako aurrerapenarekin, irizpide automatikoen eskaintza irekitzeko jendaurreko ekitaldiaren data, ordua eta lekua argitaratuko ditu kontratatzailearen profileen.

Ekitaldi horren aurretik, Kontratazio Mahaiak jakinaraziko du zeintzuk diren onartutako eta baztertutako proposamenak, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoiak. Halaber, balio-iritzien arabera irizpideek jasotako puntuazioa ere emango da.

Ondoren, jendaurreko ekitaldian, B gutun-azala irekiko da, eta bertan jasotako eskaintza ekonomikoa eta gainerako irizpide automatikoak irakurri eta jendaurrean jakinaraziko dira.

Ekitaldi hori amaitu ondoren, Kontratazio Mahaiak eskaintzak ebaluatu eta sailkatuko ditu, pleguko baldintzak betetzen ez dituzten proposamenak baztertuta.

Mahaiak egindako balorazioaren emaitza interesdunei jakinaraziko zaie.

Ondoren, Kontratazio Mahaiak puntuaziorik handiena lortu duen lizitatzailaren aldeko esleipen-proposamena egingo dio kontratazio-organoari.

Esleipen-proposamena egin aurretik, eta proposatutako lizitatzailari dagokionez, egiaztatuko da haren gaitasuna, ordezkaritza, kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa edo profesionala, eta kontratatzeko debekurik ez duela, indarrean dagoen legediaren arabera.

## **16. KONTRATUAREN ESLEIPENA ETA JAKINARAZPENA**

### **i) Eskaintzen sailkapena eta esleipen-proposamena:**

Eskaintzak baloratu eta gero, Kontratazio Mahaiak aktarekin batera esleipen-proposamena bidaliko dio kontratazio-organoari. Eskaintzak beherezko ordenan agertuko dira, eta aurreko klausulan zehaztu diren esleipen-irizpideen arabera bakoitzari emandako puntuazioa eta kalitate-prezio erlazio onena duen eskaintza jasota geratuko dira.



**ITSASONDOKO  
UDALA**

## **ii) Eskaintza ekonomikorik onena aurkeztu duen lizitatzailleak aurretiazko baldintzak betetzen dituenaren egiaztatzea aurkeztea.**

Mahaiak puntuaziorik onena lortu duen enpresa edo enpresariari komunikazio elektronikoaren bidez SPKLaren 75.2 artikuluan aipatzen den konpromisoa hartzeko, hots, behin betiko bermea eratzeko, eskatuko dio, eta kontratua gauzatzeko jarri edo atxikiko dituela hitzemandako bitartekoak dituenaren egiaztatzea aurkezteko ere, lege-testu berdinen 76.2 artikuluan jasotakoa betez. Horretarako, 7 egun balioduneko epea emango zaio, jakinarazpena bidaltzen denetik.

Gainera, Mahaiak, Lizitatzailen Erregistroan inskribatuta egotea nahitaezkoa EZ denean edo datu edo dokumentuetako batzuk Erregistro horretan agertzen ez direnean, enpresariari, enpresari (edo ABEEren enpresa kideei) eskatuko die epe berdinean dokumentu hauek aurkez ditzatela:

### a) Lizitatzaileren nortasunaren egiaztariak:

Lizitatzailera pertsona juridikoa bada, nortasuna Merkataritza Erregistroan inskribatutako eraketa- edo aldageta-eskriuraren bidez egiaztatuko da, baldintza hori derrigorrezkoa denean. Osterantzean, eraketako agiria, estatutuak edo sorrera-egintza aurkeztu beharko ditu. Azken horretan jarduera arautzen duten, eta, hala badagokio, Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden, arauak jasota utziko dira. Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik esleituko baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jarduera-eremua kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz. Alderdi hori aurkeztutako dokumentazioan egiaztatu behar da.

Lizitatzailera pertsona fisikoa bada, NAN edo horren baliokidea aurkeztu beharko du.

b) Eskaintzaren sinatzaileak betetzen duen ordezkartzaren egiaztatzea (beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten badu).

c) Zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekin betebeharrak egunean izatearen egiaztatzea.

d) Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko egiaztatzea, eskaintzak aurkezteko fasean egindako adierazpenaren arabera eta 10. Puntuan aipatutako baliabideak erabiliz.

Lizitatzailleak adierazitako epean eskaera horri erantzuten ez badio, eskaintza baztertu duela iritziko zaio. Ondorioz, puntuazioaren arabera hurrengo hautagaiari esleipen- proposamena egingo zaio, eta 7 egun balioduneko epean eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du.

## **ii) Esleipena**

Behin betiko bermea eratuta eta adierazitako dokumentazioa eman eta gero, kontratazio-organoak esku-hartzeagatiko fiskalizazioa egin eta kontratua bost egun balioduneko epean esleituko du, dokumentazioa jasotzen duenetik.

Esleipena arrazoitua izango da, eta hautagai edo lizitatzailere bide elektronikoetatik jakinaraziko zaie, eta, aldi berean, Itsasondoko Udalaren kontratatzailearen profilean eta web-orrian argitaratuko da ([www.itsasondo.eus](http://www.itsasondo.eus)).

3.- Kontratazio Mahaiaren proposamenez, hala badagokio, kontratazio-organoak lizitazioa hutsik deklaratu dezake agirian agertzen diren irizpideen arabera eskaintza edo proposamen onargarririk ez badago.



## **ITSASONDOKO UDALA**

4.- Kontratua bi hileko epean esleituko da gehienez, proposamenen B gutun- azala irekitzen den biharamunetik zenbatzen hasita. Adierazitako epean esleipen-akordiorik ematen ez bada, lizitatuzaileek eskaintza bazter dezakete.

5.- Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profileen adieraziko da zein den kontratua formalizatzeko epea, SPKLaren 153.3 artikuluan jasotakoaren arabera. Epe hori ezingo da inolaz ere 15 egunetik gorakoa izan.

### **17. KONTRATUA FORMALIZATZEA**

Kontratua dokumentu administratibo batean formalizatu behar da, hamabost egun balioduneko epean gehienez, esleipenaren jakinarazpena jasotzen denetik. Dokumentu horrek edozein erregistro publikotan sartzeko balio du. Kontratatista, nolana ere, kontratua eskritura publiko bihurtzea eska dezake, eta haren kargura izango dira dagozkion gastuak.

Kontratua perfektionatu egiten da formalizatzen denean.

Kontratua formalizatzean Itsasondoko Udalaren ([www.itsasondo.eus](http://www.itsasondo.eus)) kontratatzailearen profileen argitaratuko da.

### **18. KONTRATUA GAUZATZEA ETA ZEHAPENAK**

Kontratuari ezingo zaio hasiera eman kontratatista sinatzen ez duen bitartean, eta agiri honetan aurreikusten ez denerako, SPKLaren 287. artikulua eta hurrengoak bete beharko dira.

Betetze akastuna: Kontratuaren xede den prestazioak akatsak baditu, kontratazio-organoak arau-haustearen larritasunaren arabera zehapenak ezar ditzake.

Kontratazio-organoak ezarriko ditu zehapen horiek, baina, lehenago, kontratatista audientzia eman eta dagokion txostena izapidetuko du.

Testu berdinen 197. artikulua betez, iritziko zaio kontratatista "bere gain eta arriskupean" onartzen duela kontratua.

### **19. KONTRATUA ALDATZEA**

Kontratua perfektionatu denean, interes publikoko arrazoiengatik bakarrik sar daitezke aldaketak, klausula honetan aurreikusitako kasuetan edo ustezkoetan, eta SPKLaren 205. artikuluan ezarritako mugekin.

Kontratuan aldaketak sartu behar badira, kontratuaren zuzendaritzak dagokion proposamena idatziko du, eta hura justifikatzen, deskribatzen eta baloratzen duten agiriak atxikiko dizkio. Administrazioak aldaketa onartu aurretik enpresa kontratatista audientzia eman behar zaio. Kontratazio-organoak aldaketa horiek onartu behar ditu, baina, lehenago, SPKLaren 207. artikuluan aurreikusitako prozedura izapidetu eta SPKLaren 153. artikuluan aurreikusitako administrazio-agiria formalizatu behar dira, behin betiko bermea berregokitu eta gero, hala badagokio.



ITSASONDOKO  
UDALA

## 20. KONTRATUAREN BETETZEA ETA ONDORIOAK

SPKLaren 291. artikuluan eta ondorengoetan jasotakoarekin adostasunean, emakidaren epea amaituta, zerbitzua Udalaren eskuetan geratuko da berriro. Kontratastak instalazioak mantentze-eta funtzionamendu-baldintza egokietan itzuli behar ditu.

Kontratua amaitu aurretik 6 hilabeteko epea egongo da horretarako, eta Udalak behar diren neurriak hartuko ditu ondasunak hitzartutako baldintzetan itzuli direla egiaztatzeko.

Emakidadunak kontratua ez betetzearen ondorioz gorabehera larriren bat gertatzen bada, Udalak emakida bahitzea edo esku-hartzea erabaki dezake, lege-testuaren 293 eta 263 artikuluetan jasotakoa betez, eta, horrez gain, 264. artikuluan jasotako zehapenak ezar ditzake.

## 21. KONTRATUA AMAITZEA

**Kontratua ondorengo arrazoiren batengatik amaitu ahal izango da:**

SPKLaren 294. artikuluan jasotzen dira kontratua amaitzeko kausak, eta lege- testu berdinen 295. artikuluan, berriz, izan ditzaketen ondorioak. Kontratuari amaiera emateko zioak dira ere:

a) Administrazioari egotz dakioken arrazoi batengatik kontratua sei hilabetetik gora etetea, hasiera ematea aurreikusitako datatik.

b) Administrazioaren erabakiz kontratua urtebetetik gora etetea edo hari uko egitea.

c) Kontratuko aldaketak, ondoz ondokoak badira ere, modu isolatu edo bateratuan kontratuaren prezioan eragiten badute, eta dagokion aldaketa onartzerakoan kontratuaren prezioa % 20 inguru areagotzen badute edo hari nabarmen eragiten badiote.

d) Administrazioaren eta kontratastaren elkarren arteko adostasunez.

d) Halaber, kontratua amaitzeko kausa izan daiteke kontratastak agiri honetan jasotzen diren derrigorrezko obligazioak eta gainontzeko kontratu-agiriak ez betetzea, honakoak bereziki:

1.- Hamabost (15) egunetik gora zerbitzua etenda edukitzea eta onartutako tarifak eta prezioak arrazoirik gabe aldatzea.

2.- Kontratuan aipatzen ez diren beste erabilera batzuk ematea lokalari, Itsasondoko Udalaren aurre-baimenik gabe

3.- Irekiera ordutegiak eta zerbitzuaren xedea ez betetzea.

## 22. ARAU-HAUSTEAK

SPKLaren 264. artikuluan xedatutakoaren arabera, esleipendunak kontratuaren inguruan izan ditzakeen ez-betetzeak arau-hauste arin eta larri gisa sailkatuko dira.

Arau-hausteen larritasuna zehazteko, kontuan hartuko dira, bereziki, zerbitzuaren funtzionamenduan duen eragina, erabiltzaileei eragindako kaltea, ez-betetzeen errepikapena eta egindako ez-betetzearen izaera.

Halaber, agiri honetan zehar berariaz ezarritako betebeharrak batzuk funtsezko obligaziotzat jotzen dira; horien ez-betetzeak, bereziki zerbitzu minimoak ez ematea, instalazioen mantentze egokia ez bermatzea edo erabiltzaileen arreta egokia ez eskaintzea, arau-hauste larritzat jo ahal izango dira.



**ITSASONDOKO  
UDALA**

### **1. Arau-hauste arinak**

Honako hauek arau-hauste arintzat hartuko dira:

- a) Esleipendunak kontratatutako eta zerbitzuari atxikitako langileekiko dituen betebeharrak sozial eta laboralak ez betetzea.
- b) Zerbitzuak atzerapenarekin ematea, modu errepikatu eta sistematikoan.
- c) Zerbitzu-prestazioan hutsune puntualak edo partzialak egotea, baldin eta horiek ez badute zerbitzuaren kudeaketa arriskuan jartzen eta erabiltzaileei kalte nabarmenik eragiten.
- d) Langileen itxura desegokia izatea (uniformetasuna ez mantentzea, garbitasunik eza edo txukun ez jantztea).
- e) Zerbitzuko langileek erabiltzaileekiko portaera desegokia izatea.
- f) Itsasondoko Udalak zerbitzuaren inguruan egindako idatzizko ohartarazpenak behin eta berriz ez betetzea, baldin eta zehapen-espeditentzia hasi ez bada ere, eta urtebeteko epean kontzeptu beragatik bi ohartarazpen jasotzea.
- g) Urte berean izaera bereko bi arau-hauste arin egiteagatik zehapenak jasotzea.
- h) Zerbitzua emateko ondasunak behar bezala ez zaintzea.
- i) Emakidaren xede diren ondasunen garbitasun-falta edo narriadura nabarmena.
- j) Hirugarrenen ondasunei kalte egitea, erru edo zabarkeriagatik, dagokion ondare-erantzukizuna alde batera utzi gabe.
- k) Preskripzio sanitarioak edo higiene- eta segurtasun-betebeharrak ez betetzea, egoera osasungaitzak edo arriskutsuak prebenitzeko aginduak urratuz.

### **2. Arau-hauste larriak**

Honako hauek arau-hauste larritzat hartuko dira:

- a) Zerbitzuaren prestazioan hutsune larriak egotea, zerbitzuaren kudeaketa arriskuan jartzen dutenak, eta Udalak egindako ohartarazpenak ez betetzea.
- b) Zerbitzua ez hastea agirian ezarritako epean.
- c) Zerbitzua edo emakidaren xedea osorik edo partzialki lagatzea, eskualdatzea, azpikontratitzea edo kargatzea (hipotekatzea edo pignoratzea), Udalaren baimenik gabe edo ezarritako baldintzak urratuz.
- d) Urtebeteko epean izaera bereko bi arau-hauste arin egiteagatik zehapenak jasotzea, edo bi urteko epean hiru arau-hauste arin egitea.
- e) Zerbitzuari lotutako ondasunetan kalteak eragitea, nahita edo zabarkeria larriagatik.
- f) Zerbitzua bertan behera uztea edo etetea, ezinbesteko kausarik egon gabe, edo lanuzte kasuetan zerbitzu minimoak ez betetzea.
- g) Iruzurra zerbitzuaren prestazioan, hala nola, beharrezko baliabideak edo funtsezko elementuak ez erabiltzea, materiala desagertzea edo kontrol-sistematan irregularitasunak egotea.
- h) Erantzukizun zibileko aseguruaren primak epean ez ordaintzea.



**ITSASONDOKO  
UDALA**

i) Udalak egindako idatzizko ohartarazpenak hiru aldiz ez betetzea seihileko berean.

### **23. ZEHAPENAK**

SPKLaren 264. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, aurreko artikuluan jasotako arau-hausteengatik honako zehapenak ezarri ahal izango dira:

#### **Arau-hauste arinak:**

Oharpena edo, hala badagokio, gehienez hiru mila (3.000) euro arteko isuna.

#### **Arau-hauste larriak:**

Hiru mila eta bat (3.001) eurotik hamar mila (10.000) eurora bitarteko isuna ezarri ahal izango da.

Halaber, kasuaren larritasunaren arabera, emakidaren gehienez hiru hilabeteko behin-behineko etetea edo kontratua azkentzea erabaki ahal izango da.

Azken kasu horretan, esleipendunak Itsasondoko Udalari eragindako kalte-galerak ordaindu beharko ditu, eta jarritako bermea galduko du.

Emakidadunak ezarritako zehapen ekonomikoen zenbatekoa Itsasondoko Udaleko altxortegian ordaindu beharko du, kasu bakoitzean ezarritako epean.

Diru-zehapenak eguneratu ahal izango dira Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako Kontsumorako Prezioen Indizearen (KPI) urteko igoeraren arabera

### **24. ERANTZUKIZUNAK**

Administrazioaren eta kontratistaren erantzukizunak SPKLaren arabera arautuko dira.

Edonola ere, kontratistak hirugarrenei kalte-ordaina eman beharko die zerbitzuaren funtzionamenduak eragindako kalteengatik.

Administrazioa izango da berak emandako agindu baten ondorioz zuzenean eta istanten gerta litezkeen kalteen erantzulea, legeak ezarritako mugen barruan.

### **25. KALTE GALERAK**

Itsasondoko Udalak esleipendunari agiri honetatik eratorritako baldintzak aplikatzeko eta errespetu handienarekin jarduteko eska diezaioke, eta, horrez gain, udal-jabetzako instalazioek jasan ditzaketen kalte-galerengatik eta, orokorki, esleitutako zerbitzuaren funtzionamenduan antzemandako hutsuneengatik, ordainak eska diezazkioke, eta, ordainetan, lehenik eta behin, eratutako fidantzatik dagokiona hartu.

Bat-batean hasten diren auziak, esleipendunak agiri honen edo baldintza teknikoaren klausuletako bat ez betetzeagatik, gastu judizial eta estrajudizial guztiak haren kontura, eta bide judizialek galdagarriak, izango dira.

Kontratistak kontratua ez betetzearen ondorioz zerbitzuan gorabehera larriren bat gertatzen bada, beste baliabide batzuekin konponezina dena, Administrazioak esku hartzea erabaki dezake harik eta hura desagertzen den arte, kontratuari amaiera eman nahi ez badio behinik



**ITSASONDOKO  
UDALA**

behin. Edonola ere, kontratistak Administrazioari eragindako kalte-galerengatik ordaina eman beharko dio.

Administrazioak agiria interpretatzeko eta haren betetzearen inguruko zalantzak argitzeko ahalmena du. Zerbitzuaren irismena interes publikoko arrazoiengatik alda daiteke, administrazio-kontratazioari buruzko indarreko legedian aipatzen diren mugekin eta baldintzekin.

Kontratuaren interpretazio, aldaketa, ebazpen eta ondoreei lotutako gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak erabakiko ditu. Akordio horiek amaiera emango diote administrazio- bideari, eta haien kontra administrazioarekiko auzi- errekurtsua aurkeztu ahal izango da, jurisdikzio hau arautzen duen legean jasotakoa betez eta aldeei legokiekeen beste edozein foruri espresuki uko eginez. Horrez gain, Legeak onetsitako beste edozein helegite jartzeko aukera dago.

## **26. KONTRATUAREN AMAIERA.**

Edozein arrazoiengatik kontratua amaitzen denean, akta egingo da. Akta honetan jasoko da esleipendunak Itsasondoko Udalari lokala, instalazioak, altzariak, tresnak eta antzekoak zein egoeratan eta baldintzatan itzultzen dizkion. Halaber, inbentarioarekin alderatuko dira, kalteak ordaintzearen.

Itsasondoko Udaleko Idazkariak eta esleipendunak izenpetutako akta honetan, kontratua deuseztatzearen arrazoiak eta birjarri beharreko zenbatekoa adieraziko dira. Esleipendunak zenbateko hau ordaindu beharko du izenpetzen denetik kontatzen hasi eta 15 lanegunetan, bestela, bermea eta subsidiarioki ondasun guztiak atxikiko zaizkio.

Esleipenduna Udalak azken akta egiteko adierazitako egunean azalduko ez balitz, Udaleko Idazkariak idatzitako agiria baliozkoa eta galdagarria izango da.

Agiri honetan azaltzen diren edozein arrazoiengatik kontratua hautsiko balitz, taberna-jatetxean lanean ari diren langile guztiek zerbitzua utziko dute. Langile hauek duten lotura juridikoa esleipendunaren eta honen negozioaren eremura mugatuko da eta ez du lokalarekiko eraginik izango.

Kontratua hausteko erabakia Itsasondoko Udalaren organo eskudunak hartuko du eta esleipendunak, jakinarazpenetik aurrera kontatuta 30 lanegunetan, berea den guztia hartuz, jaso zuen moduan itzuli beharko du taberna-jatetxea eta bertan zegoen guztia.

## **27. HARREMAN MOTA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA**

Sektore Publikoko Kontratu Legearen 15. artikulua, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak onartutakoak, jasotakoaren arabera, kontratu horrek zerbitzu publikoen emakidarako administrazio-kontratuaren sailkapena du. Sinatuko den kontratuak, gainera, baldintzen agiri hau, herri-administrazioen kontrataziorako oinarri komunak eta Europar Batasuneko Zuzenbidearen oinarriak, kontratazio publikoari dagozkionak, bete beharko ditu.

Kontratazioa SPK Lan araututako prozedura ireki arruntaren bidez egingo da, eta testu legalaren 284. artikuluan eta hurrengoetan eraentzen denaren pean egongo da.



**ITSASONDOKO  
UDALA**

Aipaturiko xedapenekin ebatzi ezin diren kontratuaren interpretazioari, ondorioei, betetzeari eta azkentzeari lotutako auzien kasuan Zuzenbide Pribatuko arauak aplikatuko dira, Zuzenbide Osagarri moduan, baina ezingo dira inolaz ere Administrazioaren eskumenak ahaztu.

Kontratazio honi lotutako erabakiei eta izapide-egintzei, azken horiek gaiaren funtsa zuzenean edo zeharka erabakitzen badute, prozedurarekin jarraitzeko ezintasuna adierazten badute edo legezko eskubide eta interesei kalte konponezina edo defentsa-gabezia eragiten badiote, hala nahi izanez gero, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak arautzen duen berraztertze errekurtso administratiboa, edo, bestela, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak arautzen duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, jar dakieke.

Interesatuak gainontzeko izapide-egintzen aurkaritzari helegitea jar diezaiokete, prozedurari amaiera emango dion ebazpenean aintzat hartzeko.

### **Hizkuntza klausulak**

Enpresa kontratistak eta, egonez gero, azpikontratistak honako arauak ezartzen dituzten hizkuntza betebeharren mende gauzatu beharko dute kontratuaren objektua: Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea, 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa, eta 19/2024 dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoa. Horrez gain, enpresa esleipendunak, zerbitzua ematerakoan, Udalak bere hizkuntza jardura arautzeko dituen planen arabera jokatu du. Horretarako, kontratua egingo duen departamentuarekin, harremanetan jarriko da, zerbitzua ematerakoan bete beharko diren hizkuntza baldintzen berri eman diezaion.

9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 62. artikuluari jarraiki, alkateak (kontratuaren arduradunak) kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza baldintzak behar bezala betetzen diren jarraipena egin, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.

Jarraipen egokia egiteko beharrezko informazioa emango dio esleipendunak kontratuaren arduradunari, horretarako kontratuaren arduradunak jarraipenerako autoebaluazio eredia helaraziko dio.

Baldintza agiritan ezartzen diren hizkuntza baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu.



ITSASONDOKO  
UDALA

## I. ERANSKINA – ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

(Lizitatzailleak bete beharrekoa)

**IZEN-ABIZENAK / ENPRESA IZENA:**.....

**NAN / IFK:** .....

### JAKINARAZPENETARAKO DATUAK:

- Helbidea: .....
- Posta elektronikoa: .....
- Telefonoa: .....

### ORDEZKARIA (hala badagokio):

- Izen-abizenak: .....
- NAN: .....
- Ordezkaritza-kargua: .....

**(Enpresa elkarteen kasuan, ondoko enpresekin batera):**

.....

### ADIERAZTEN DUT, nire erantzukizunpean:

1. Kontratazio honetan parte hartzeko jarduteko gaitasun osoa dudala.
2. Ez dudala kontratazeko debekurik, indarrean dagoen legediaren arabera.
3. Baldintza-agirian eskatzen diren kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoak edo profesionala betetzen ditudala.
4. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ditudala.
5. Enpresa elkarte baten kasuan, parte hartzen duten enpresa guztiek baldintza hauek betetzen dituztela, eta kontratua esleitzen bada, aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratuko dela.
6. Aurkeztutako datu eta agiri guztiak egiazkoak direla.
7. Kontratazio-organoak eskatuz gero, adierazitakoa egiaztatzeko beharrezko dokumentazioa aurkezteko konpromisoa hartzen dudala.
8. Baldintza-agiri honetan jasotako klausula guztiak osorik onartzen ditudala, inolako salbuespenik gabe.
9. Kontratua esleitzen bazait, zerbitzua behar bezala emateko eta baldintzak betetzeko konpromisoa hartzen dudala.

Eta horrela jasota gera dadin, agiri hau sinatzen dut.

**Lekua eta data:** .....

**Sinadura:** .....



**ITSASONDOKO  
UDALA**

## **II. ERANSKINA – ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA ESPERIENTZIAREN EREDUA**

**(Lizitatzailleak bete beharrekoa)**

**IZEN-ABIZENAK / ENPRESA IZENA:** .....

**NAN / IFK:** .....

**ORDEZKARIA (hala badagokio):**

- Izen-abizenak: .....
- NAN: .....

**(Enpresa elkarte baten kasuan, ondoko enpresekin batera):**

.....

### **1.- ESKAINTZA EKONOMIKOA (KANONA)**

Hileko ustiapen-kanon gisa honako zenbatekoa eskaintzen dut:

**Zenbakietan** ..... € / hilean **(BEZ barne)**

**Idatziz:** ..... € / hilean **(BEZ barne)**

### **2.- HERRIAREKIKO LOTURA**

- **Itsasondon bizi / erroldatuta / helbide fiskala: ..... hilabete**
- **Goierri bizi / erroldatuta / helbide fiskala: ..... Hilabete**

### **3.- ESPERIENTZIA PROFESIONALA**

Ondoko esperientzia aitortzen dut:

#### **a) Kudeaketa-lanetan izandako esperientzia**

(taberna, jatetxe edo antzeko establezimenduen kudeaketa edo arduradun lanetan)

- **Hilabete kopurua: ..... hilabete**

#### **OHARRA:**

- Esperientzia egiaztatzeko dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du esleipendunak.
- Esperientzia mota (kudeaketa edo bestelakoa) behar bezala egiaztatzen ez bada, gainerako ostalaritza-esperientzia gisa baloratuko da.
- Esperientziaren balorazioa pleguan ezarritako irizpideen arabera egingo da.

**Eta horrela jasota gera dadin, agiri hau sinatzen dut.**

**Lekua eta data:** .....

**Sinadura:** .....